

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuen arteko bilera

Maria Solana Arana eta Cristina Uriarte Toledo kontseilarien arteko bilera, hezkuntzan gaurkotasuneko diren hainbat gai aztertzeko

Ostirala, 2018.eko azaroak 16

Gaur goizez, Nafarroako Gobernuko eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuen arteko lan bilera burutu da Iruñean. Maria Solana Arana kontseilaria eta Cristina Uriarte Toledo sailburua buru zirela, hezkuntzan gaurkotasuna duten hainbat gai aztertu dituzte bi orduz. Sailburuekin batera, bileran parte hartzaile izan dira, Nafarroako Gobernutik, Roberto Perez Elortza Hezkuntzako zuzendari nagusia, eta Nekane Oroz Breton Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusia ere. Cristina Uriartek, berriz, lagun izan ditu Maite Alonso Arana Hezkuntza sailburuordea, Olatz Garamendi Landa Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea, Adolfo Morais Ezquerro Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea, Jorge Arevalo Turrillas Lanbide Heziketako sailburuordea eta Jose Ignacio Bañuelos Ibañez Kabinete zuzendaria.



Solana eta Uriarte kontseilariak Nafarroako eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuetako gaintzeko autoritateekin.

Bilera hau, gobernu biek sektoreko bileren bidez dagoeneko ezarria duten harremanaren baitan kokatzen da. Gaurko bilera, gobernu batak zein besteak eskuartean dituzten gaiak elkarrekin partekatzeko baliatu nahi izan dute sailburuek, eta baita etorkizunean elkarlanerako izan daitezkeen aukerak aztertzeko ere.

Gaur goizean aztertu diren gaien artean, honako hauek izan dira: enplegu publikorako eskaintzekin loturikoak, hezkuntza-ikuskaritzari buruzkoak, ikastetxeen ebaluazio prozesuak, zuzendaritzaren funtzioa, edo Sailaren kudeaketarako aplikazio



informatikoak. Lanbide Heziketari dagokionez, ikaskuntzarako metodologia aktiboen gaiari heldu zaio, eta Lanbide Heziketa Dualaz zein enplegarritasunaz ere aritu dira. Unibertsitatearen eta Ikerketaren esparruan, aldiz, honako gai hauekiko ikuspuntua partekatu da: unibertsitate sistemaren finantziazioa eta ebaluazioa, ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta dibulgazioa, hezkidetzaren nahiz hizkuntza ereduak eta zertifikazioak.

Bi erkidegoetako Hezkuntza Departamentuetako autoritateak bileraren momentu batean.

Gaurko bileraren balorazio ona egin dute gobernu biek. Hezkuntza sailen artean harremana izateak, hezkuntza arloko ekimenak elkarlanean bultzatzeko aukera eskaintzen duela iritzi diote, bestearen esperientzia norberarentzat aberasgarri bihurtuz, eta jardunbide egokiak elkarrekin partekatuz. Horregatik, Nafarroako Gobernuak zein Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailek bilerak sustatzen jarraituko dute hainbat mailatan, administrazio bien etengabeko hobekuntzarako tresna baliagarria delakoan hori.